LEHENENGOA.- 2021eko otsailaren 5ean Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialaren gehigarrian (DO/S S25 60045-2021-ES) lizitazio-iragarkia argitaratu ondoren, Tolosako udalbatza osoak, 2021eko irailaren 30ean egindako ohiko bilkuran, onartu egin zuen, besteak beste, Tolosako kirol-instalazioen kudeaketa integraleko zerbitzuen emakida-kontratua adjudikatzeko eta kontratuaren lizitazioa hasteko kontratazio-espedita.

Kontratazio-espeditak agiri hauek zituen, besteak beste:

- Baldintza teknikoen agiria.
- Administrazio-klausula zehatzen agiria.
- Emakidaren azterketa ekonomiko-finantzariora, AGEM aholkularitza-enpresak egina.
- Langile subrogagarrien eranskina, enpresa kontratistak udalari emandako informazioaren arabera.
- Enpresaren lan-hitzarmena, 2018an sinatua, 2020ko ekainaren 1ean automatikoki salatua eta aurreraeragina duena.

BIGARRENA.- Egin beharreko izapideak egin ondoren, eta 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak (SPKL hemendik aurrera), eta aplikatu beharreko gainerako legeriak xedatutakoarekin bat etorritz, 2022ko otsailaren 8an, kontratazio-mahaiak kontratazio-organoari (Osoko Bilkurari) proposatu zion aipatutako kontratua BPXport XXI SLU enpresari esleitzea, izapidetutako lizitazioan gehieneko puntuazioa lortu zuelako.

Tolosako Udalaren udalbatza osoak, 2022ko otsailaren 22an egindako bilkuran, udalaren kirol-instalazioen kudeaketa integraleko zerbitzuen emakida-kontratua aipatutako enpresari esleitzea erabaki zuen. Ebazpen horren ondoren, eta ordura arteko enpresa

kudeatzaileak eta esleipendun berriak egindako eskaera onartu ondoren, kontratua 2022ko irailaren 1ean sinatu zen, eta egun horretan bertan jarri zen indarrean.

HIRUGARRENA.- Enpresa emakidaduneko langileek egindako greba mugagabearen ondorioz, kirol-instalazio gehienak itxita egon ziren 2023ko maiatzaren 8tik azaroaren 20 eta 23ra arte, hurrenez hurren. Aldez aurretik, instalazioak itxita egon ziren martxoan langileek izandako 10 eguneko grebaren ondorioz.

Dagokion prozedura izapidetu ondoren, Tolosako Udalaren osoko bilkurak, 2023ko azaroaren 14an egindako bilkuran, erabaki hauek hartu zituen:

LEHENENGOA.- *Hasiera ematea Tolosako Udalaren kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratua suntsiarazteko prozedurari (Esp.: 2021CSER0002).*

BIGARRENA.- *Emakidadunari, HAKLEOren 109.1a) artikuluan xedatutakoaren arabera, 10 egun naturaleko entzunaldi-epea ematea, ebazpen honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eskubidez komeni zaiona alega dezan, bere jarrera defendatzeko agiriak eta egiaztagiriak aurkeztuz.*

Emandako epean alegaziorik aurkezten ez bada, ulertuko da ez diola aurka egin kontratua suntsiarazteari.

HIRUGARRENA.- *Banco de Sabadell SA erakunde abal-emaileari entzunaldia ematea, ebazpen honen bigarren puntuan adierazitako epean.*

LAUGARRENA.- *Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea.*

Osoko bilkura berean, Tolosako Udalak bere eskumeneko kirol zerbitzuak esleitzeko beste lizitazio-prozedura bat premiaz hasita erabaki zuen. Kontratu honen esleipena indarrean dagoen emakida amaitu eta gero ebatziko litzateke.

Lehen esan bezala, kirol-instalazioek normaltasunez berreskuratu zuten jarduera 2023ko azaroaren 20an eta 23an.

Udal honek suntsiarazpen-prozeduran emandako arrazoiak, funtsean, honako hauek izan dira:

- Kontratuaren betebeharrak nagusia betetzeari uztea, langileen grebaren ondorioz instalazio garrantzitsuena (Usabal kiroldegia) itxita egon delako, eta zerbitzu gehienak emakidadunak ez dituelako eman. Halaber, beste instalazioak normaltasunez ez funtzionatzea
- Kontratu-dokumentazioan jaso gabeko gastu-kontzeptu berri bat emakidadunak sartzea (gastu orokorrak/management fee), aurreikusitako gastua handituz.
- Kontratuaren xede diren inbertsioak gauzatzeari uztea.

LAUGARRENA.- 2023ko abenduaren 4an, enpresa emakidadunak alegazio-idazki bat aurkeztu zuen Udal honetako Erregistro Orokorrean (14.907/2023 zk.), 9 dokumenturekin batera, 2023EJEC0014 espedientean jasota daudenak. Aurkeztutako dokumentazioan, hasitako prozeduraren aurka zegoela adierazi zuen, eta horren inguruko argudioak azaldu zituen.

Erakunde abal-emaileak ez zuen alegaziorik aurkeztu.

2024ko otsailaren 29an, osoko bilkurak erabaki zuen, besteak beste, kontratua suntsiarazteko espedientea Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari bidaltzea, nahitaezko txostena egin zezan.

Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salak 2024ko urtarrilaren 29an emandako 422/2024 Epaia onduz, zeinaren arabera, autonomia-erkidegoak berariaz arautu ezean, kontratua suntsiarazteko espedienteak izapidetzeko eta ebazteko gehieneko epea 3 hilabetekoa dela zehazten baita, Tolosako Udalaren osoko bilkurak, 2024ko martxoaren 27an egindako bilkuran, besteak beste, ebazpen-espedientearen iraungitze-prozedura hastea erabaki zuen.

Iraungitzat jotzeko prozedura hori behin betiko ebazpenaren zain dago gaur egun, eta Tolosako Udaleko osoko bilkurari dagokio deklarazio hori ebaztea.

BOSGARRENA.- Enpresa emakidadunaren ordezkariak udal honetan agertu da, eta eskatu du dagoen emakida amaitzeko aukera azter dadila, aldean arteko akordioaren bidez. Zehazki, 2024ko abuztuaren 9an aurkezturiko eskaeran (10.503/2024 Erregistro zk.a) BPXport XXI SLU enpresaren ordezkariak honako dokumentazioa aurkeztu du:

- Eskaera, alderdien arteko adostasunezko zerbitzu-emakidako kontratua suntsiarazteko. Honako arrazoi nagusiak azaldu ditu, hitzez hitz:
 - *SEGUNDO.- Que, como bien conoce este Ayuntamiento, durante el año 2023 el personal trabajador de BPXPORT adscrito al anterior contrato emprendió una huelga indefinida que duró 7 meses, causando graves perjuicios económicos a esta empresa, además de los perjuicios generados a las personas usuarias que se vieron afectadas por la anterior situación.*
 - *CUARTA.- Que, tras el fin de la huelga, persiste un clima de “crispación” entre el personal trabajador que provoca que la ejecución del contrato, en sus actuales términos, arroje inseguridades e incertidumbres respecto a su futura viabilidad.*
 - *QUINTA.- Que, en aras de no causar más perjuicios a las personas usuarias de las instalaciones deportivas de Tolosa, ni al Ayuntamiento de Tolosa, ni a la propia BPXPORT, se interesa, al amparo de lo previsto en la cláusula 61 del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares (PCAP), en relación con lo dispuesto en el art. 211.1.c) de la LCSP, la resolución de mutuo acuerdo del contrato administrativo para la “gestión integral de las instalaciones deportivas municipales de Tolosa”, suscrito entre BPXPORT*

y el Ayuntamiento de Tolosa, en fecha 1 de septiembre de 2022.

- 2022ko hirugarren lauhileko eta 2023ko ekitaldiko kontuen egoerari buruzko laburpenak, kontratu-dokumentazioan ezarritako baldintzak errespetatuz eta ebazpen-espedientea eragin zuten zenbatekoak sartu gabe (gastu orokorrak/management fee).
- Auditorearen komunikazioa, kontuen egoerari buruzko azalpenak emanez.
- Gauzatutako inbertsioen zerrenda eta emakida-kontratua betetzeko falta direnak gauzatzeko konpromisoa, kontratua suntsiarazteko ezarritako datara arte, espedientean jasota dagoen Kirol Instalazioen teknikari arduradunak egindako txostenaren arabera. Enpresako ordezkariak aurkeztutako laburpenaren arabera, inbertsio hauen zenbatekoa 155.910,62 €-koa da.
- Birjartzeko inbertsioen zerrenda, termino berdinetan (gauzatutakoak eta falta diren inbertsioak gauzatzeko konpromisoa, kontratua suntsiarazteko ezarritako datara arte). Birjarpen-inbertsioen kopurua 74.491,67 €-koa da.
- Enpresaren administratzaile bakar berriaren nortasuna eta ahalmenak egiaztatzen dituen dokumentazioa.

Aurkeztutako dokumentazioaren arabera, 2023ko ekitaldiari dagokion ustiapen-kontuak **316.740,96** euroko emaitza negatiboa izan du enpresa emakidadunak, batez ere langileek sei hilabete baino gehiago egin duten grebaren ondorioz.

SEIGARRENA.- 2024ko lehen hilabeteetan, honako gertaera hauek izan dira, kontratuaren ekonomiari eragiten diotenak:

Sinatutako emakida-kontratuak hainbat inbertsio planifikatuta gauzatzea aurreikusten ditu, emakidadunak bere kargura kudeatzen dituen instalazioak mantentzeko eta berritzeko, guztira 1.380.000 €-ko zenbatekoan. Bestalde, urtean 35.000 €-ko partida dago birjartzeko inbertsioetarako.

Zerbitzuak mantentzeko eta hobetzeko inbertsioei dagokienez, 225.000 €-ko zuzkidura aurreikusi zen guztira emakidaren dokumentazioan, gastu energetikoa monitorizatzeko eta instalazioen kontrol-sistema eguneratzeko, baita galdara berri bat instalatzeko ere, hori guztia Usabal kiroldegian.

Hala ere, azken hilabeteetan Usabal kiroldegiko, klimatizazio- eta etxeko ur beroaren instalazioetan hutsuneak antzeman dira, eraikin horietan eskaintzen diren zerbitzuen funtzionamendu normalari eragin diezaioketenak. Egindako azterketaren arabera, instalazio horiek erabat berritu behar dira, eta pleguetan aurreikusitako inbertsioek ezin dute bermatu haien funtzionamendua kontratuak dirauen bitartean. Horretaz gain, kogenerazio-instalazioa eta eguzki-plakak ezin dira erabili, funtzionatzen ez dutelako.

AIGUASOL Creative Climate Solutions enpresak Tolosako Usabal kiroldegiaren energia-sorkuntzarako diagnostika eta oinarritzko proiektua egin ditu, eta horiek berretsi dute beharrezkoa dela sorkuntza termikoko eta banaketako (klimatizazioko eta ur bero



sanitarioko) instalazio guztiak berritzea, horien ordez energia berriztagarrien erabileran oinarritutako beste batzuk ezarriz (biomasa eta aerotermia, batez ere), administrazio publikoei aplikatu beharreko jasangarritasun energetikoaren arloan indarrean dagoen legeriaren zehaztapenak betez. Oinarrizko Proiektu horretan hasiera batean zenbatetsitako instalazio termikoen aurrekontua **1.604.355,58** €-koa da BEZik gabe eta **1.941.270,25** €-koa BEZarekin. Igerilekuen esparruko airea girotzeko instalazioei dagokienez, aurreikusitako aurrekontua **209.895,73** €-koa da BEZik gabe, eta **253.973,83** €-koa BEZarekin, hori guztia egindako Oinarrizko Proiektuaren zenbatespenekin bat etorritu.

Espedientean jaso da, bestaldetik, Tolosako udaleko Ingeniari Tekniko Elektrokoak egindako txostena, honako proposamen hauek egiten dituenak:

LEHENA.- ONARTZEA Euskadiko Jasangarritasun Legeak 2030 urterako ezartzen duen kontsumo murrizketa helburura iristeko (%35eko murrizketa), Usabal Kiroldegiaren instalazio termikoetan efizientzia hobetzeko esku-hartze bat gauzatzea BEHARREZKOA dela.

BIGARRENA.- ONARTZEA Euskadiko Jasangarritasun Legeak 2030 urterako ezartzen duen iturri berriztagarriko sorkuntza mailaren helburura iristeko (kontsumoaren %32), Usabal Kiroldegiaren instalazio termikoetan energia berriztagarriak erabiltzen duten ekipo berriak jartzeko esku-hartze bat gauzatzea BEHARREZKOA dela.

HIRUGARRENA.- ONARTZEA, aurreko bi puntuetan aipatutako jasangarritasun legearen 2030 urterako helburuetara iristeko Usabal Kiroldegian egin BEHARREKO esku-hartzearen inbertsioa 1.864.274,69€ ingurukoa dela (BEZa barne).

LAUGARRENA.- Proposamen hau JAKINARAZTEA, Idazkaritzari, Kirol Zerbitzuei eta Udal Gobernuari, hartu beharreko neurriak har daitezten.

Argitu behar da kopuru horiek bat datozela *AIGUASOL Creative Climate Solutions* enpresak hasieran egindako azterlanarekin, eta ondoren eguneratu egin direla enpresa berak egindako oinarrizko proiektuan, txosten honetan jasotzen den moduan.

Egoera horrek indarrean dagoen emakida-kontratuaren bizitzari berari eragiten dio; izan ere, egungo emakidadunak inbertsio hori egitearen ondoriozko oreka ekonomikoa berrezartzeak kontratuaren iraupena luzatzera behartuko luke, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legean ezarritako gehieneko mugak nabarmen gaituz.

Arrazoi hauek kontuan hartuz, Tolosako Udalak eskaera egin du Energiaren Euskal Erakundeak egindako dirulaguntzen deialdian eta *AIGUASOL Creative Climate Solutions* enpresak egindako proiektua aurkeztu du aipaturiko erakundearen aurrean, Energia berriztagarri termikoko instalazioak ekonomiaren hainbat sektoretan ezartzeko pizgarri-programan parte hartzeko. Programa hori Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan jasota dago, eta eskaerak aurkezteko epea aurtengo uztailaren 31n

amaitu zen. Diru-laguntza hori lortuz gero, ekonomia handia lortuko litzateke egin beharreko inbertsioetan, baina egungo emakida-eredua ez den beste kontratu-esparru batean soilik garatu ahal izango litzateke.

ZAZPIGARRENA.- 2023ko maiatzetik azarora arte emakidaren xede diren zerbitzuak emateari uztea eragin zuten inguruabarrei dagokienez, alde batera utzita alderdi bakoitzak horri buruz egin dezakeen azterketa eta balorazioa, bi alderdiek bat datoz kontratua gaur egungo baldintzetan gauzatzek, aurreko puntuan azaldutakoaz gain, ziurtasunik gabe dagoela etorkizuneko bideragarritasunari begira. Izan ere, instalazioetako langileei aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa ezin izango litzateke berri emakidaren baldintzak funtsean aldatu gabe.

Horregatik guztiagatik, bai Tolosako udalak, bai enpresa emakidadunak ondorioztatu dute egungo inguruabarrek ez dutela aukerarik ematen emakida-kontratuarekin jarraitzeko.

ZORTZIGARRENA.- Kontuan hartuta 2020ko COVID pandemiak geroztik udal-titulartasuneko kirol-zerbitzuen prestazioan eragin negatiboa izan dutela askotariko arrazoiek (pandemiak, grebak, instalazioak ixteak, etab.), Tolosako Udalak, azken hilabeteetan hartutako ebazpenen bidez, agerian utzi du zerbitzua emateko egonkortasun-eta bideragarritasun-aldi bat arautzearen beharra, hiru helbururekin: kirol-instalazioen jarduera osoa berreskuratzea, jasangarritasun energetikoaren arloan indarrean dauden lege-xedapenen arabera funtzionamendua bermatzeko beharrezkoak diren inbertsioak egitea, eta interes orokorrerako egokiena den kudeaketa-ereduari buruzko hausnarketa-aldi bati ekitea. Horretarako:

- Udal-titulartasuneko kirol-zerbitzuen kudeaketa zerbitzu-kontratuaren formularen bidez esleitzeko lizitazio bat sustatu du, kontratistaren arriskua eta mentura kontuan hartuta, baina ez emakidadun bati dagokion eragiketa-arriskua.
- Usabal kiroldegian zerbitzuak emango direla bermatzeko behar diren inbertsioak egingo ditu, batez ere Usabal eraikineko ur beroaren instalazioak eta energia berriztagarrien bidezko klimatizazioa. Horretarako, dagokion dirulaguntza eskatu du, Next Generation funtsen kargura.

Fase berri hori hasteko, ezinbestekoa da egun indarrean dagoen zerbitzu-emakidako kontratua suntsiaraztea.

BEDERATZIGARRENA.- Proposatzen den adostutako suntsiarazpenaren ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

- Emakida-kontratuaren suntsiarazpenaren eraginkortasun-data 2024ko irailaren bata izango da.

- Tolosako udalak honako konpromisoak hartuko ditu:
 - Behin betiko iraungizat deklaratzeko Udal honek izapidetutako 2023EJEC0014 kontratu-suntsiarazpenaren espedientea, akordiorik gabekoa.
 - Bi aldeen adostasunez kontratua suntsiarazteko dagokion prozedura izapidetzea, kontratazio-organoak horren aldeko erabakia har dezala (udalbatza osoak).
 - Egungo emakidaren ondorengo zerbitzu-kontratua ahalik eta azkarren izapidetzea, presako izapidetzearen modalitatean, eta lehenbailehen esleitzea eta sinatzea.
 - Egungo emakida likidatzeko beharrezkoak diren izapideak ahalik eta lasterren egitea, emakidadunaren dokumentazio egokia jaso eta hark hartutako konpromisoak bete ondoren.
 - Emakidadunaren ordezkariarekin batera agerraldia egitea Administrazioarekiko Auzien Donostiako 2. Epaitegian izapidetzen ari den 49/2024 zenbakiko prozedura arruntean (gaur egun etenda dago prozedura hori), alderdiek lortutako akordioaren berri emateko.
 - Emakidaren baldintza-agirietan xedatutakoaren arabera legezkiokkeen onura aldakorren urteko likidazioak egitea, kontratua hasi denetik 2024ko abuztuaren 31ko ebazpena eman arte, BPXport XXI SLUK behar duen dokumentazioa aurkeztu ondoren. Likidazio hori onartzeko organo eskuduna Udalbatza dela kontuan hartuta, likidazio hori bi hilabeteko epean egingo da, aipatutako enpresak beharrezko dokumentazioa aurkezten duenetik zenbatzen hasita.

- BPXport XXI SLUK, bere aldetik, honako konpromiso hauek hartuko ditu:
 - Emakidaren xede diren zerbitzuak alderdiek sinatu beharreko dokumentuan adierazitako datetara arte ematea.
 - Kirol Instalazioen Kudeatzaileak egindako txostenean jasotako inbertsioak egitea, emakida-kontratua amaitu aurretik, aurtengo abuztuaren 31 erreferentziatzen hartuta. Nolanahi ere, egiteke dauden inbertsioak gauzatzeko beharrezkoa bada, BPXport XXI, S.L.U.k adostutako inbertsioak gauzaten amaitu ahal izango du iraileko lehen egunetan, zerbitzu-kontratu berria izenpetu aurretik, proposatzen den hitzarmenean jasotzen denaren arabera.
 - Egindako birjartze-inbertsioak egiaztatzea, eta, indarrean dagoen kontratua betetzeko beharrezkoa bada, gauzatzeko daudenak egitea, aurtengo abuztuaren 31 erreferentziatzen hartuta.
 - 2022ko hirugarren lauhilekoari eta 2023ko ekitaldiari dagozkien gastuen kontua honela birdoitzea honako era honetan: gastu orokorrak 0 eurokoak izatea, eta *beste enpresa batzuek egindako lanak* kontzeptupeko gastuak enpresa emakidadunak lizitazioan aurkeztutako azterketa ekonomikoari egokitzea. 2024ko ekitaldiari dagokion zatirako, hau da, 2024ko abuztuaren 31ra arte, berdin jokatuko da, eta epe horri dagozkion kontuen egoera-orriak

aurkeztu beharko dira 2024ko irailaren 30a baino lehen, Tolosako Udalak dagokion onura aldakorraren likidazioa egin ahal izan dezan kontzeptu horien arabera.

- Tolosako Udalari ordaintzea emakidaren baldintza-agirietan xedatutakoaren arabera legozkiokeen onura aldakor gisa likidatutako zenbatekoak, kontratua hasten denetik 2024ko abuztuaren 31n ebatzi arte, hilabeteko epean, kontratazio-organoak onartutako likidazioaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera.
- Tolosako Udalaren ordezkartzarekin batera agerraldia egitea Donostiako Administrazioarekiko Auzien 2 zenbakiko Epaitegian izapidetzen ari den 49/2024 zenbakiko prozedura arruntean (gaur egun etenda dago prozedura hori), alderdiek lortutako akordioaren berri emateko.

HAMARGARRENA.- Emakida-kontratuaren suntsiarazpenaren eraginkortasunari dagokionez, bi egoera aurreikusten ditu alderdien artean adostutako dokumentuak:

1.a: 2024ko irailaren 1ean izapide bakar gisa geratzen bada Tolosako Udalak sustatutako zerbitzu-kontratu berria sinatzea, eta sinadura hori Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 153.3 artikuluan xedaturiko ohiko epean gauzatzen bada, suntsiarazpenaren ondorioak kontratu berria formalizatu aurreko egunetik aurrera hasiko dira.

2.a: Alderdien borondatearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik, Tolosako Udalak sustatutako zerbitzu-kontratu berria ezin bada indarrean jarri aurreko kasuan aurreikusitako datetan, kontratazio arloko helegite berezia aurkeztu delako BPXport XXI SLU merkataritza-sozietateak konpromisoa hartzen du Tolosako Udalaren titulartasuneko kirol-zerbitzuak ematen jarraitzeko, Toki Korporazioen Zerbitzuen Erregelamenduaren 128.1 artikuluan eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 288.a) artikuluan xedatutakoari jarraiki, harik eta beste zerbitzu-kontratu bat formalizatu arte, bai egungo lizitazioetik datorrena, bai, errekurtsio bat jartzearen ondorioz lizitazio hori ondoriorik gabe uzten bada, haren ondorengotik datorrena. BPXport XXI SLU enpresak emango ditu zerbitzuak, alderdiek sinatutako akordioan ezarritako zehaztapenen babesean. Zehaztapen horiek bi alderdien arteko akordioak jasotzen dituen dokumentuan islatu dira, txosten honekin batera doanean.

HAMAIKAGARRENA.- Emakida-kontratu adostasunez suntsiarazteko prozedura, 2021CSER0002 espedientean jaso da, honako dokumentazioaz hornituta:

- Enpresa emakidadunaren eskaera, eta berarekin doan dokumentazioa, txosten honen BOSGARREN aurrekarian aipatutakoaren arabera.
- Kontratu suntsiaraztearekin lotutako inbertsioei buruzko txostena, Tolosako Udaleko kirol-instalazioen kudeatzaileak egina.

- Usabal Kiroldegiko ACS eta klimatizazioaren instalazioen berrikuntza jasotzen dituzten proiektuak, *AIGUASOL Creative Climate Solutions* enpresak egina.
- USABAL KIROLDEGIKO INSTALAZIOA TERMIKOETAN ENERGIA BERRIZTAGARRIETAKO ITURRIAK JARTZEKO BEHARRA JUSTIFIKATZEA izeneko txostena, Tolosako udaleko ingeniari tekniko elektrikoak egina.
- Idazkariaren txostena.
- Emakida-kontratua bi alderdien adostasunez amaitzeko hitzarmenaren proposamena.

AZTERKETA JURIDIKOA

LEHENA.- Kontratuaren araubidea.

Honako hauek arautzen dute kontratua: Tolosako Udalak 2021eko irailaren 30ean egindako osoko bilkuran onartutako administrazio-klausula partikularren agirietan ezarritako xedapenek, preskripzio teknikoek eta Udal honen eta BPXport XXI SLU merkataritza-sozietatearen artean 2022ko irailaren 1ean sinatutako kontratuak, gainontzeko kontratu-izaera duen dokumentazioarekin batera.

Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen III. kapituluko II. tituluko bigarren liburuan araututako zerbitzu-emakidako kontratua da, eta lege horretan eta hura garatzeko araudian jasotako xedapenak aplikatuko zaizkio.

BIGARRENA.- Kontratua suntsiarazteko ahalmena.

Tolosako udalak onartutako administrazio-klausula orokorren 61. artikulua eta klausula partikularren 31. artikulua kontratuaren suntsiarazpena arautzen dute, beti ere 9/2017 Legearen 211 eta 212 artikuluetan jasotakoa kontutan hartuz.

Kontratua suntsiaraztea, Tolosako udalaren ahalmena da, 9/2017 Legearen 190. Artikuluan xedatutakoaren arabera: *Dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos señalados en la presente Ley, el órgano de contratación ostenta la prerrogativa de interpretar los contratos administrativos, resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, modificarlos por razones de interés público, declarar la responsabilidad imputable al contratista a raíz de la ejecución del contrato, suspender la ejecución del mismo, acordar su resolución y determinar los efectos de ésta.*

HIRUGARRENA.- Suntsiarazpenaren baldintzak.

9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, kontratuak suntsiarazteari buruzko xedapen hau biltzen du bere 211. artikuluan, bestek beste:

- c) Kontratista eta administrazioaren arteko adostasuna.

Aipaturiko legearen 212. artikulua honako xedapen hauek jasotzen ditu, kasu honetan aplikagarriak direnak:

1º) Kontratuaren suntsiarazpenak kontratazio-organoak ebatziko du, ofizioz ala kontratistak eskatuta. Kasu honetan, Tolosako udalbatza osoari dagokio erabakia hartzea, kontratistak eskatuta, baino interes publikoko arrazoietan oinarrituta, aurrerago justifikatuko den moduan.

2º) Kontratua suntsiarazi ahal izango da bi aldeak ados jarrita, baldin eta kontratua suntsiarazteko kontratistari egotz dakiokkeen beste kausarik ez badago, eta, betiere, interes publikoko arrazoiak direla-eta, ez bada beharrezkoa edo desegokia kontratuak irautea.

Kasu honetan, Tolosako Udalak hasi zuen kontratua kontratistari egotz dakizkiokeen kausengatik suntsiarazteko prozedura, funtsezko hiru arrazoi hauengatik:

1ª) 2022ko hirugarren lauhilekoari dagokion ustiapen-kontuan kontratu-dokumentazioarekin zerikusirik ez duten gastu-kontzeptuak sartzeagatik (gastu orokorrak/management fee), 213.000 eurotik gorako zenbatekoan.

Atal honetan, emakidadunak 2022ko hirugarren lauhilekoari eta 2023ko ekitaldiari dagozkien kontuen egoerak birdoitu ditu, gastu-kontzeptu hori kenduta, eta honako partida hauek Udal honek adjudikatutako eskaintzaren arabera kontzeptuak sartuta: profesional independenteen zerbitzuak eta beste enpresa batzuen zerbitzuak.

Halaber, enpresak konpromisoa hartu du 2024ko urtarrilaren 1etik abuztuaren 31a bitarteko baldintza berdinetan aurkezteko. Azkenik, udalak kitaturiko onura aldakorra hilabete bateko epean ordaintzeko konpromisoa jasotzen du bi alderdien arteko akordio-proposamenak.

2) Kontratuan aurreikusitako inbertsio-programa ez betetzea.

Atal honetan, enpresak eta udalak akordio bat lortu dute 2024ko abuztuaren 31ra arte egin beharreko inbertsioei dagokienez, eta hala egiaztatzen dute bai enpresak aurkezturiko zerrendak eta gainontzeko dokumentazioak, eta kirol-instalazioen kudeatzaileak egindako txostenak, honako zerrenda honen arabera:

INVERSIONES PROGRAMADAS

Usabal Material Deportivo: Equipamiento fitness 38.054,48 €

Usabal Acuchillado cancha: 42.494,30 €

Usabal Luces led. Campo fútbol: 9.917,16 €

Usabal Puerta automática: 14.478,93 €

Usabal Caseta bibliopiscina: 1.717,00 €

Usabal Ampliación zona sombra: 303,75 €

Berazubi Pistas tenis 48.945,00 €

TOTAL INVERSIONES PROGRAMA: 155.910,62 €

INVERSIONES DE REPOSICIÓN

Ordenador: 2.073,72 €

Traspaso a BPX Provis: 1.297,73 €

Piezas Manta filtro: 1.486,85 €

Programa gestión clientes: 28.982,72 €

Material deportivo 2022: 104,18 €

Material deportivo 2023: 2.139,09 €

Material deportivo 2024: 2.099,81 €

Puerta de entrada: 7.366,87 €

Beotibar Red fronton: 28.940,70 €

TOTAL INVERSIONES DE REPOSICIÓN: 74.491,67 €

Programatutako inbertsioak zehazteko, emakidako kontratuan aurreikusitako inbertsioen programaren bi urtetako proiektzioa (2022ko irailaren 1etik 2024ko abuztuaren 31ra) kontuan hartu da, lehentasuna duten inbertsioak kontuan hartuta, eta programaren izaera adierazlea ahaztu gabe. Birjarpeneko inbertsioei dagokienez, kontratuan aurreikusitako urte bakoitzeko kopurua, 35.000 €.koa, kontuan hartu da. Inbertsio batzuk jadanik eginda daude, eta beste batzuk exekutatzeko konpromisoa hartzen du emakidadunak proposatutako akordioan.

3) Langileen grebaren ondorioz, emakida-kontratuaren xede diren zerbitzuak emateari uztea.

Argi dago bi alderdiek diagnostiko desberdina egin dutela langileek zazpi hilabete baino gehiago egindako grebaren kausei eta ondorioei buruz. Hala ere, gai horri dagokionez, bistan dago ere doktrina- eta jurisprudentzia-jarrera desberdinak daudela, baita antagonikoak ere.

Alde batetik, enpresa emakidadunak zioen greba-egoera ezin zela kontratuaren ez-betetzat jo, enpresak ezin zuelako ezer egin zerbitzuak berrezartzeko, kontzesioaren ekonomiak ez zuelako ahalbidetzen langileek eskatutako soldata-igoera. Bestaldetik, grebak iraun bitartean, enpresak ezin zuen emakidaren xede ziren zerbitzuak emango zituen langile berririk kontratatu. Tolosako Udalak, bere aldetik, emakidadunak soldata-kostu berriak bere gain har zitezkeela argudiatu zuen, esleipendunak aurkeztutako ustiapen-memoria kontuan hartuta.

Alderdi bakoitzak jurisprudentzia eta aholku-organoen txostenak aurkeztu zituen bere iritzia justifikatzeko, espedientean azaltzen den moduan.

Testuinguru horretan, bi irtenbide posible baino ez zeuden: lehenengoa, kontratistari egotz dakioken suntsiarazpen-prozedura berri bat hastea, alderdien arteko akordiorik gabe, gehienez ere hiru hilabeteko epean garatu eta ebatziko zena. Iraupen epe hori oso laburra da ezaugarri horiek dituen prozedura baterako, eta presazkoa da Autonomia Erkidegoko lege-xedapen bat, prozedura luzatzen duena eta prozeduraren izapidetzearekin bat

datorren epe berri bat ezartzen duena, baino momentuz ez dago horrelako aurreikuspenik. Bestalde, aukera horrek beste atzerapen bat ekarriko luke enpresako langileei dagokienez dauden arazo sozialen konponketan, horrek dakartzan arriskuak eta segurtasunik eza.

Bigarren irtenbidea, adostasunean oinarrituta, BPXport XXI SLUren jarrera-aldaketaren ondoren baino ez da posible izan, eta kontratua alderdien arteko akordioaren arabera suntsiarazteko prest agertu da, bere betebeharrak izenpetutako baldintzen arabera betez.

9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen duenak kontratua suntsiarazteko arrazoi gisa arautzen du Administrazioaren eta kontratistaren arteko adostasuna, 211.1.c) artikuluan.

Ezin dugu ahaztu txosten honetan deskribatutako egitatezko aurrekarietan adierazitako azken inguruabarra: ur beroko eta klimatizazioko instalazioen egoera eskasa, eta ahalik eta lasterren guztiz berritzeko beharra.

Faktore horrek, egungo plantillaren lan-baldintzak eguneratzeko beharreakin batera, Udal honen eskumeneko kirol-zerbitzu publikoak egonkortasun-giro batean ematea ahalbidetuko du. Beraz, interes publikoko arazoak direla-eta, komeni da emakida-kontratu hau suntsiaraztea, Administrazioaren eta kontratistaren arteko akordio bidez..

LAUGARRENA.- Organo eskuduna.

Kasu honetan, kontratazio-organoa udalbatza osoa da, kontratuaren balio zenbatetsiak udaleko sarrera arrunten %10a gainditzen duelako eta haren iraupena lau urtetik gorakoa delako, 9/2017 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarriaren 2. paragrafoan xedatutakoaren arabera.

Aurreko guztia aintzat harturik, udal idazkariaren aldeko txostena ikusita, Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2024ko abuztuaren 23an egindako bilkuran, irizpen-proposamena aztertu eta bozkatu du.

Bozketaren emaitza honakoa hau izanda da:

Aldeko botoak: Kristina Peláez Errazkin, Josune Sanz Vidal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Garbiñe Marzol Ormazábal.

Abstentzioak: Biotxa Agirre Ugalde eta Ainhoa Domínguez Landa.

Beraz, gehiengoz, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udallbatzaren Osoko bilkurari:

IRIZPENA

LEHENIK.- Onartzea Tolosako Udalaren kirol-zerbitzuak osorik kudeatzeko Udal honen eta BPXport XXI SLU merkataritza-sozietatearen artean sinatutako kontratua suntsiaraztea, bi aldeak ados jarrita.

BIGARREN.- Onartzea kontratua amaitzeko bi alderdien artean sinatu beharreko akordioaren testua, honen arabera:

Tolosako udaletxean, 2024ko abuztuaren 30ean.

AGERTU DIRA

Alde batetik, Angel Martinez de Rituerto Arregui jauna, adinez nagusia, jakinarazpenetarako helbidea Tolosako Udalean duena (Plaza Zaharra, 6A).

Bestetik, Fernando Llano Martínez jauna, adinez nagusia, ezkondua, fisikoa, ondorio hauetarako helbidea Serrano kaleko 55eko 2. solairuan duena (Madrid, 28006), 72.132.208-E NAN zenbakia duena.

ESKU HARTZEN DUTE

Lehena, Tolosako Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz, udalbatzak 2024ko abuztuaren 30ean egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat etorritz. Erabaki horren ziurtagiria 1. dokumentu gisa erantsi da.

Bigarrena, BPXport XXI, S.L.U merkataritza-sozietatearen ordezkari gisa, BPXport XXI, S.L.U. sozietateak bazkide bakarraren erabakiak publiko egiteko eskrituran emandako ahalmenekin bat etorritz. Eskritura hori Amanay Rivas Ruiz Madrilgo notarioaren aurrean egiletsi zen, 2024ko apirilaren 17an, 1.149 protokolo-zenbakiarekin.

Agertutakoak adierazten du bere karguko betebeharrean dagoela, ezen bere aldeko ahalmenak eta ordezkaritza ez zaizkiola errebokatu, kendu edo mugatu, oso-osorik daudela indarrean eta bere ordezkatuaren gaitasun juridikoa ez dela aldatu ere.

Tolosako Udaleko alkatea Udaleko idazkariarekin batera agertu da. M^a Begoña Garmendia Vázquez, ekitaldi honen fede ematen duena.

Bi aldeek, bakoitzak ordezkutzen duenaren izenean jardunez, obligazioak hartzeko legezko gaitasuna elkarri aitortu eta, honen ondorioetarako, erabakitzen dute honakoa xedatzea:

ADIERAZI DUTE

LEHENA.- 2021eko otsailaren 5ean Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialaren gehigarrian (DO/S S25 60045-2021-ES) lizitazioaren aurretiko iragarkia argitaratu ondoren, Tolosako Udalak, 2021eko irailaren 30ean egindako ohiko bilkuran, besteak beste, Tolosako udal kirol instalazioen kudeaketa integraleko zerbitzuen emakida-kontratua esleitzeko kontratazio espedientea onartu zuen, bai eta kontratuaren lizitazioari hasiera eman ere.

Kontratazio-espeditentak, besteak beste, honako agiri hauek zituen:

- Preskripzio tekniko partikularren plegua.
- Administrazio-baldintza partikularren plegua.
- Emakidaren azterketa ekonomiko-finantzarioa, AGEM aholkularitza-enpresak egina.
- Langile subrogagarrien eranskina, enpresa kontratistak garai hartan emandako informazioaren arabera.
- Enpresako lan-hitzarmena, 2018an sinatua, 2020ko ekainaren 1ean automatikoki salatua eta ultraaktibitatearen mende dagoena.

BIGARRENA.- Egin beharreko izapideak egin ondoren, eta SPKLn eta aplikatu beharreko gainerako legeetan xedatutakoarekin bat etorriz, 2022ko otsailaren 8an kontratazio-mahaia kontratazio-organoari (Udalbatzari) proposatu zion erreferentziako kontratua BPXport XXI, SLU enpresari adjudikatzea, izapidetutako lizitazioan puntuaziorik handiena lortu zuelako.

Tolosako Udalak, 2022ko otsailaren 22an egindako osoko bilkuran, udal kirol instalazioen kudeaketa integraleko zerbitzuaren emakida kontratua aipatutako enpresari adjudikatzea erabaki zuen. Ebazpen horren ondoren, eta irtetzen zuen enpresak eta esleipendun berriak egindako eskaera onartu ondoren, kontratua 2022ko irailaren 1ean formalizatu zen, eta egun berean jarri zen indarrean.

HIRUGARRENA.- Enpresa emakidaduneko langileek hasitako greba mugagabea zela eta, kirol-instalazio gehienak jendearentzat itxita egon ziren 2023ko maiatzaren 8tik azaroaren 20ra eta 23ra, hurrenez hurren.

Tolosako Udaleko osoko bilkurak, 2023ko azaroaren 14an egindako bileran, honako erabaki hauek hartu zituen:

“Lehenengoa.- Hasiera ematea Tolosako Udalaren kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratua suntsiarazteko prozedurari (Esp.: 2021CSER0002).

Bigarrena.- Emakidadunari, HAKLEOren 109.1a) artikuluan xedatutakoaren arabera, 10 egun naturaleko entzunaldi-epea ematea, ebazpen honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eskubidez komeni zaiona alega dezan, bere jarrera defendatzeko agiriak eta egiaztagiriak aurkeztuz.

Emandako epean alegaziorik aurkezten ez bada, ulertuko da ez diola aurka egin kontratua suntsiarazteari.

Hirugarrena.- Banco de Sabadell SA erakunde abal-emaileari entzunaldia ematea, ebazpen honen bigarren puntuan adierazitako epean.

Laugarrena.- Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea.”

Osoko bilkuran bertan, Tolosako Udalak erabaki zuen lizitazio-prozedura berri bati lehenbailehen ekitea, eta kontratuaren esleipena indarrean dagoen emakida amaitzearen baldintzapean jarri zuen.

Lehen esan bezala, kirol-instalazioek normaltasunez berreskuratu zuten jarduera 2023ko azaroaren 20an eta 23an.

Udal honek ebazpen-prozeduran emandako arrazoiak, funtsean, honako hauek ziren:

- Langileen greba dela-eta kontratuaren betebeharrak nagusia bertan behera uztea.*
- Kontratu-dokumentazioan jaso gabeko gastu-kontzeptu berri bat sartzea.*
- Kontratuaren xede diren inbertsioak ez gauzatzea.*

LAUGARRENA.- 2023ko abenduaren 4an, enpresa emakidadunak alegazio-idatzi bat aurkeztu zuen Udal honetako erregistro orokorrean (14.907/2023 zk.), aipatutako espediente honetan dauden 9 dokumenturekin batera. Aurkeztutako dokumentazioan, hasitako prozeduraren aurka zegoela adierazten zuen, eta horri buruzko argudioak ematen zituen.

2024ko otsailaren 29an, Udalbatzak, besteak beste, kontratua suntsiarazteko espedientea Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari bidaltzea erabaki zuen, nahitaezko txostena egin zezan.

Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salak 2024ko urtarrilaren 29an emandako 422/2024 Epaia onduz, zeinaren arabera Auzitegiak zehazten baitu, autonomia-erkidegoak berriaz arautu ezean, kontratua suntsiarazteko espedienteak izapidetzeko eta ebazteko gehieneko epea 3 hilabetekoa dela, Tolosako Udalak, 2024ko martxoaren 27an egindako osoko bilkuran, besteak beste, ebazpen-espedientearen irautze-prozedura hastea erabaki zuen.

Iraungitzat jotzeko prozedura hori behin betiko ebatzi gabe dago oraindik, eta Tolosako Udalari dagokio deklarazio hori egitea.

BOSGARRENA.- Enpresa emakidadunaren ordezkariak agerraldia egin du Udalean, eta eskatu du azter dadila egungo emakidari amaiera emateko aukera, aldeen arteko akordio baten bidez.

Horretarako, hainbat bilera egin dira, eta, horietan, kontratistak honako proposamen hauek egin ditu:

- Enpresak diru-sarreraren eta gastuen kontuak doituko ditu (2022ko, 2023ko eta 2024ko hirugarren lauhilekoa, emakida-kontratua suntsiarazten den egunera arte), kontratu-dokumentazioan ezarritako baldintzen arabera, suntsiarazpen-espeditentea eragin zuten zenbatekoak sartu gabe, dokumentu honetako klausuletan zehazten den moduan.*
- Dokumentu honetan ezarritako kontratua amaitu arte gauzatzeke dauden inbertsioak egingo ditu, bertan zehazten diren baldintzen arabera.*
- Birjarpen-inbertsioak egiaztatuko ditu, edo, hala badagokio, egingo ditu, kontratuan ezarritako baldintzen arabera.*

*Era berean, emakidadunak 2023ko ekitaldiari dagozkion kontuen egoera-orriak aurkeztu ditu Udal honetako sarrera erregistroan, enpresaren legezko ordezkariak sinatuta, gaur egungo kontuen egoera justifikatzen duen auditoretza-dokumentu batekin batera. Aurkeztutako dokumentazioaren arabera, 2023ko ekitaldiari dagokion ustiapen-kontuak **316.740,96 euroko** emaitza negatiboa du, batez ere langileek sei hilabete baino gehiagoz egindako grebaren ondorioz.*

SEIGARRENA.- 2024ko lehen hilabeteetan, honako gertakari hauek izan dira, eta, zalantzarik gabe, kontratuaren ekonomiari eragiten diote:

Sinatutako emakida-kontratuak aurreikusten zuen hainbat inbertsio egitea planifikatuta, emakidadunak kudeatzen dituen instalazioak haren kargura mantentzeko eta berritzeko, 1.380.000 euroko zenbatekoarekin guztira. Bestalde, urtean 35.000 euroko partida zegoen birjarpen-inbertsioetarako.

Zerbitzuak mantentzera eta hobetzera bideratutako inbertsioei dagokienez, 225.000 euroko zuzkidura aurreikusten zen gastu energetikoa monitorizatzeko eta instalazioak kontrolatzeko sistema eguneratzeko, baita galdara berri bat instalatzeko ere, hori guztia Usabal kiroldegian.



Hala ere, azken hilabeteetan akats handiak antzeman dira Usabal kiroldegiko kogenerazio-, klimatizazio- eta ur bero sanitarioko instalazioetan, eta akats horiek instalazio horretan eskaintzen diren zerbitzuen funtzionamendu normalari eragin diezaiokete. Beraz, beharrezkoa da osorik berritzea.

AIGUASOL Creative Climate Solutions enpresak Proyecto básico para la generación energética del Polideportivo Usabal Tolosa izeneko proiektua egin zuen. Proiektu horrek berretsi egiten du pixkanaka berritu egin behar direla sorkuntza termikoko eta banaketako instalazio guztiak (klimatizazioa eta ur bero sanitarioa), eta horien ordeztu beste batzuk jarri behar direla, energia berriztagarrien erabileran oinarritutakoak (biomasa eta aerotermia, batez ere), administrazio publikoei aplikatu beharreko jasangarritasun energetikoaren arloan indarrean dagoen legediko zehaztapenak betez. Instalazio termikoen aurrekontua **1.604.355,58 eurokoa** da, BEZik gabe, eta **1.941.270,25 eurokoa**, BEZa barne. Igerilekuen esparruko airea girotzeko instalazioei dagokienez, aurrekontua **209.895,73 eurokoa** da, BEZik gabe, eta **253.973,83 eurokoa**, BEZa barne. Hori guztia egindako oinarritzko proiektuaren estimazioen arabera.

Egoera horrek indarrean dagoen emakida-kontratuaren bizitzari berari eragiten dio; izan ere, egungo emakidadunak inbertsio horren ondoriozko oreka ekonomikoa berrezartzeak kontratuaren bizitza luzatzera behartuko luke, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legean ezarritako mugak nabarmen gaindituz.

Tolosako Udalak agerraldia egin du Energiaren Euskal Erakundeak egindako dirulaguntzen deialdian, **Ekonomiaren hainbat sektoretan energia berriztagarri termikoen instalazioak ezartzeko pizgarri-programak, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan**. Programa hori aurtengo uztailaren 31n amaitu zen eskabideak aurkezteko epea. Dirulaguntza hori lortuz gero, ekonomia handia lortuko litzateke egin beharreko inbertsioetan, baina egungo emakida-eredua ez den beste kontratu-esparru batean soilik garatu ahal izango litzateke.

ZAZPIGARRENA.- 2023an emakidaren xede diren zerbitzuak emateari uztea eragin zuten inguruabarrei dagokienez, sinatzaile bakoitzak horri buruz egin dezakeen azterketa eta balorazioa alde batera utzita, bi alderdiek uste dute kontratua gaur egun gauzatzeak segurtasunik eta ziurgabetasunik eza dakarrela etorkizuneko bideragarritasunari begira.

Adierazitako guztiagatik, bi alderdiek ondorioztatu dute egungo inguruabarrek ez dutela gomendatzen kontratuaren bizitza luzatzea.

ZORTZIGARRENA.- Kontuan hartuta 2020ko COVID pandemiak geroztik udal titulartasuneko kirol zerbitzuen eskaintzan eragin negatiboa izan dutela hainbat motatako arrazoiek (pandemia, greba, etab.), Tolosako Udalak, azken hilabeteetan hartutako ebazpenen bidez, agerian utzi du zerbitzuaren prestazioan egonkortasun eta bideragarritasun aldi bat arautzeko borondatea duela, helburu hirukoitzarekin: kirol instalazioen jarduera osoa berreskuratzea, jasagarritasun energetikoaren arloan indarrean dauden lege xedapenen arabera funtzionatuko dutela bermatzeko behar diren inbertsioak egitea, eta interes orokorrerako egokiena den kudeaketa ereduari buruzko hausnarketa-aldi bati ekitea. Horretarako:

- Udal-titulartasuneko kirol-zerbitzuen kudeaketa zerbitzu-kontratuaren formularen arabera esleitzeko lizitazioa sustatu du, kontratistaren arriskua eta mentura kontuan hartuta, baina ez emakidadunaren eragiketa-arriskua.

- Usabal kiroldegian zerbitzuak emango direla bermatzeko beharrezkoak diren inbertsioei helduko die; batez ere, ur bero sanitarioko instalazioak eta energia berriztagarrien bidezko klimatizazioa. Horretarako, dagokion dirulaguntza eskatu du, Next Generation funtsen kargura.

Fase berri hau hasteko, beharrezkoa da gaur egun indarrean dagoen zerbitzu-emakidako kontratua suntsiaraztea.

BEDERATZIGARRENA.- Bi aldeek adostu dutenez emakida-kontratua 2024ko irailaren batetik aurrera suntsiaraziko dela, 3. dokumentu gisa gehitu da 2024ko abuztuaren 31n aipatutako emakidadunak gauzatu behar dituen inbertsioen zerrenda, zenbatekoak barne, kontratu-dokumentazioan ezarritako baldintzen arabera eta Tolosako Udalak ezarritako lehentasunak eta indarreko kontratuan dagoen inbertsio-planaren malgutasuna kontuan hartuta.

Horregatik guztiagatik, bi aldeek

HITZARTZEN DUTE

LEHENA.- Tolosako Udalak eta BPXport XXI, S.L.U merkataritza-sozietateak hitzartu dute 2022ko irailaren 1ean sinatutako zerbitzu-emakidako kontratua suntsiaraztea, alderdiek hala adostuta. Kontratu horren xedea da udalaren titulartasuneko kirol-zerbitzuen kudeaketa integrala egitea, dokumentu honen aurrekarietan adierazitako arrazoiengatik.

BIGARRENA.- Kontratua suntsiarazteak 2024ko irailaren batetik aurrera izango ditu ondorioak. Eraginkortasun hori bermatzeko, Tolosako Udalak ezohiko osoko bilkura egingo du abuztuaren 30ean, eta, bertan, Udalbatzari gai-zerrendako honako puntu hauek onartzea proposatuko zaio:

1. 2023ko azaroaren 14an hasitako kontratua suntsiarazteko prozedura iraungitzat jotzea.
2. 2022ko irailaren batean sinatutako kirol-zerbitzuak emateko kontratua suntsiaraztea, bi aldeak adostuta.
3. Tolosako kirol-instalazioak kudeatzeko zerbitzu-kontratua adjudikatzea (2024SABI0005).

Adierazitako aurreikuspenak ikusita, 2024ko irailaren batean izapide bakar gisa Udalak sustatutako zerbitzu-kontratu berria sinatzeke geratzen bada, eta sinadura hori Sektore Publikoko Kontratuaren 9/2017 Legearen 153.3 artikuluan aurreikusitako epe normalaren arabera egin badaiteke, suntsiarazpenaren ondorioak kontratu berria formalizatu aurreko egunetik aurrera hasiko dira.

Kontratazioaren arloko errekurtso berezi bat jartzeak kontratua sinatzeari eragiten badio, erabaki honen BOSGARREN klausulan ezarritakoa hartuko da kontuan.

HIRUGARRENA.- Tolosako Udalak betebeharrak hauek ditu:

- Udal honek izapidetutako 2023EJEC0014 espedientean jasotako akordiorik gabeko kontratua suntsiarazteko espedientea iraungi dela behin betiko deklaratzeko.
- Kontratazio-organoaren aurrean kontratua suntsiarazteko prozedura izapidetzea, bi aldeak ados jarrita.
- Egungo emakidaren ondorengo zerbitzu-kontratua ahalik eta lasterren izapidetzea, presako izapidetzearen modalitatean, eta ahalik eta lasterren adjudikatzea eta sinatzea.
- Egungo emakida likidatzeko beharrezkoak diren izapidetze-egintzak ahalik eta arinen egitea, emakidadunak dagokion dokumentazioa jaso eta aldeek hartutako konpromisoak bete ondoren.
- Dagokion agerraldia egitea, emakidadunaren ordezkariarekin batera, Administrazioarekiko Auzien Donostiako 2. Epaitegian izapidetzen ari den 49/2024 prozedura arruntean (egun etenda dago), aldeek lortutako akordioa jakinarazteko.
- Emakidaren pleguetan xedatutakoaren arabera legokiekeen mozkin aldakorren urteko likidazioak egitea, kontratua hasten denetik 2024ko abuztuaren 31n suntsiarazten den arte, BPXport XXI SLUK hurrengo klausulan adierazitako dokumentazioa bidali ondoren. Likidazioa onartzeko organo eskuduna Udalbatza dela kontuan hartuta, likidazio hori bi hilabeteko epean egingo da, aipatutako enpresak beharrezko dokumentazioa aurkezten duenetik zenbatzen hasita.

LAUGARRENA.- Bestalde, BPXport XXI, S.L.U merkataritza-sozietateak betebeharrak hauek ditu:

- Emakidaren xede diren zerbitzuak ematea, erabaki honen bigarren klausulan eta, hala badagokio, bosgarren klausulan adierazitako datetara arte.
- Emakida-kontratua amaitu aurretik, 3. dokumentu gisa erantsi den eranskinean jasotako inbertsioak gauzatzea, 175.000 euroko balioa dutenak. Nolanahi ere, egin gabe dauden inbertsioak gauzatzeko beharrezkoa balitz, BPXport XXI SLUk erabaki honen BIGARREN klausulan aurreikusitako epean amaitu ahal izango du adostutako inbertsioen exekuzioa.
- Egindako birjarpen-inbertsioak egiaztatzea, eta, indarrean dagoen kontratua betetzeko beharrezkoa bada, gauzatzeko dauden inbertsioak egitea, erreferentzia gisa aurtengo abuztuaren 31 hartuta, 70.000 eurotan baloratuta.
- 4. dok. gisa, enpresak gauzatutako edo konprometitutako inbertsioen zerrenda erantsi da. Horien egiaztagiria espedientean daude (2021CSER0002).
- 2022ko hirugarren lauhilekoari eta 2023ko ekitaldiari dagozkien gastuen kontua honela berregokitzea: gastu orokorrak 0 euro izango dira, eta beste enpresa batzuek egindako lanak enpresa emakidadunak aurkeztutako azterketa ekonomikora egokituko dira. 2024ko ekitaldiari dagokion zatirako, hau da, 2024ko abuztuaren 31ra arte, modu berean jokatu da, eta aldi horri dagozkion kontuen egoera-orriak 2024ko irailaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira, Tolosako Udalak kontzeptu horien arabera dagokion mozkin aldakorren likidazioa egin ahal izan dezan.
- Tolosako Udalarik ordaintzea onura aldakor gisa likidatutako zenbatekoak, emakidaren pleguetan xedatutakoaren arabera legezkiokoenak, kontratua hasten denetik 2024ko abuztuaren 31n ebatzi arte, hilabeteko epean, kontratazio-organoak onartutako likidazioaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.
- Dagokion agerraldia egitea, Tolosako Udalaren ordezkariarekin batera, Administrazioarekiko Auzien Donostiako 2. Epaitegian izapidetzen ari den 49/2024 prozedura arruntean (egun etenda dago), aldeek lortutako akordioa jakinarazteko.

BOSGARRENA.- Alderdien borondatearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik, Tolosako Udalak sustatutako zerbitzu-kontratu berria ezin bada indarrean sartu BIGARREN klausulan aurreikusitako datetan, BPXport XXI, S.L.U merkataritza-sozietateak konpromisoa hartzen du Tolosako Udalaren titulartasuneko kirol-zerbitzuak ematen jarraitzeko, artikulu hauetan ezarritakoaren arabera. Toki Korporazioen Zerbitzuen Araudiaren 128.1 artikulua eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 288.a) artikulua, zerbitzu-kontratu berri bat formalizatu arte, dela egungo lizitazioaren ondoriozkoa, dela ondorengoa, errekurtsio bat aurkeztearen ondorioz lizitazioa indarrik gabe uzten bada. Enpresa sinatzaileak emango ditu zerbitzuak, akordio honetan ezarritako zehaztapenen babesean.

Dagoeneko amaituta dagoen egungo emakidaren eta zerbitzu-kontratu berriaren arteko trantsizio-kasu horretan, BPXport XXI SLUk, zerbitzu publikoaren jarraitutasun-printzipioari jarraiki, aurreko paragrafoan aipatutako zerbitzuak emango ditu, eta Tolosako

Udalari emango dio eskaintako zerbitzuen erabiltzaileek jasotako diru-kopurua, eta Tolosako Udalak ordainduko du prestazio horrengatik. Horretarako, bi alderdiek adostu dute emandako zerbitzuen gehieneko prezioa eta zerbitzuak emateko parametroak, erantzukizun zibileko aseguruaren estaldura barne, preskripzio teknikoan pleguan, administrazio-klausula partikularren agirian eta gaur egun izapidetzen ari den lizitazioa arautzen duten azterlan ekonomikoan ezarritakora egokituko direla, zerbitzuaren diru-sarrerera eta gastuei buruzko datuak eguneratze-maila handiagoarekin dituztelako.

Klausula honetan aurreikusitako epe iragankorraren iraupena kontuan hartuta, sinatzaileek epe horretan horniduren titulartasunean inolako aldaketarik ez egitea erabaki dute, eta Tolosako Udalak konpromisoa hartu du enpresa titularrari hornidura horiei dagozkien fakturen zenbatekoa ordaintzeko. Hala ere, epe horretan titularitate horiek aldatzea komenigarritzat jotzen bada, Tolosako Udalak dagozkion kontratuak sinatuko ditu, eta BPXport XXI SLU sinatzailea ezin izango da aurka agertu.

Klausula honen bigarren paragrafoan adierazitako gehieneko mugaren barruan, Tolosako Udalak ordaindu beharreko prezioa BPXport XXI SLUk benetan dituen gastuen arabera zehaztuko da, behar bezala justifikatuta.

Enpresak jasotako diru-sarreraren eta benetan egindako gastuen egiaztagiriak, bai eta gastuen faktura ere, hilean behin aurkeztuko dira, dagokion hilabetearen hurrengo hileko lehen astean, 5. eta 6. eranskin gisa, hurrenez hurren, erantsi diren plantillen arabera.

Tolosako Udalak aurkeztutako dokumentazioa egiaztatuko du, eta egoki iriztitako diru-sarrerera eta gastuen egiaztagiri osagarriak eskatu ahal izango ditu.

Zerbitzuak emateagatiko ordainketa BPXport XXI SLUk emandako dokumentazioa egiaztatu eta dagokion faktura onartu ondoren egingo da, sektore publikoko kontratuen legeriak ezarritako epean. Tolosako Udalak izendatutako kontu korrontean hilerok sartuko da diru-bilketa, bi aldeek erabakitzen duten egunean. Data hori ezin izango da bost egun natural baino luzeagoa izan, emandako zerbitzuengatik Tolosako Udalak egindako faktura ordaintzen denetik kontaktzen hasita.

Bereziki garrantzitsua da gerentearen figura hornitzea, enpresak ematen dituen zerbitzuen kalitatearen antolatzaile eta bermatzaile gorenaren aldetik. Beraz, edozein kasutan, kontratazio hori enpresa sinatzaileak egin beharko du.

SEIGARRENA.- *Kontratua bi aldeek adostuta suntsiaraztea erabaki ondoren, Aldeek uko egiten diote kontratutik eratorritako betebeharrei buruzko edozein erreklamazio*

administratibo edo judizial egiteari, likidatuztat jotzen direnak, betiere akordio honetan jasotako elkarrekiko betebeharrak betetzea eta erreklamatzeari alde batera utzi gabe.

BPXport XXI SLU merkataritza-sozietateak bere gain hartutako betebeharrak ez betetzeak eskubidea emango dio Tolosako Udalari emakida suntsiarazteko prozedura hasteko, emakidadunari egotz dakiokeen arazoiren batengatik, edo, hala badagokio, ez-betetze horren ondoriozko kalte-galeren ordaina eskatzeko.

Era berean, Tolosako Udalak administrazio honek bere gain hartutako betebeharrak betetzen ez baditu, BPXport XXI SLUri eskubidea emango zaio ez-betetze horren ondoriozko kalte-galeren ordaina eskatzeko.

BPXport XXI, S.L.U. merkataritza-sozietateak, kirol-zerbitzuak kontratazeko egungo prozeduran lizitatzaila den aldetik, kontratazio-arloko errekurtsio berezia aurkezteko eskubidea du, eta eskubide hori ukazezina da. Hala ere, eskubide hori baliatzearen ondorioz errekurtsogileak ausarkeria edo fede txarra ikusten badu, BOSGARREN klausulan araututako aldi iragankorrean enpresak lortutako emaitzaren % 10eko zigorra ordaindu beharko dio Tolosako Udalari.

ZAZPIGARRENA.- *Kontratazio-organoak zerbitzuak emateko kontratua dela-eta BPXport XXI SLUri jarritako behin betiko bermea itzultzeko izapideak egingo ditu, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 111.5 artikuluan ezarritako epean. Epe hori 2024ko irailaren 1etik aurrera hasiko da zenbatzen.*

ZORTZIGARRENA.- *Akordio honek izaera administratiboa du, eta, beraz, haren interpretazioari, aldatetari, gauzatzeari, suntsiarazpenari eta ondorioei buruz sor daitezkeen eztabaidak sektore publikoko kontratuen legerian ezarritakoaren arabera ebartziko dira, lehenik eta behin, eta administrazio-legeria erkidearen eta legeria arruntaren arabera, adierazitako hurrenkeraren arabera.*

Administrazio-izaera duenez, administrazioarekiko auzien jurisdikzioak izango du alderdien artean sor daitezkeen auziak ebazteko eskumena, jurisdikzio hori arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin bat etorriz.

HIRUGARREN.- Tolosako Udaleko alkate-udalburuari ahalmena ematea suntsiarazpen-akordioa sinatzeko.

LAUGARREN.- Fidantza itzultzeari dagokionez, akordioan ezarritakoa beteko da.

BOSGARREN.- Erabaki hauek BPXport XXI, SLU eta erakunde abal-emaileari jakinaraztea.

SEIGARREN.- Hartutako erabakiak kontratatzailearen profileen, Tolosako Udalaren gardentasun-atarian eta Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi eta Garbiñe Marzol Ormazabal.

Abstentzioak: Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz, onartu du Tolosako udal kirol instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuak kudeatzeko emakida-kontratua suntsiaraztea, bi alderdien adostasunez.

3. UDALBATZAK ESKUMENAK BEREGANATZEA ETA KIROLZER, S.L. (B31603996) ENPRESARI ADJUDIKATZEA TOLOSAKO UDAL KIROL INSTALAZIOAK KUDEATZEKO ZERBITZU KONTRATUA.

Antolakuntza Lan Esparruko Ezohiko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko abuztuaren 23ko irizpena

IKUSIRIK

LEHENA.- Unitate sustatzaileko teknikariak 2024ko maiatzaren 28an igorritako txostenean, aipatutako xedea duen kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbideari hasiera eman zion. Bertan, jardunbidea burutu ahal izateko, honako hauek eskatu zituen: Administrazio baldintza partikularren plegua; preskripzio tekniko partikularren plegua; baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena; kontratua justifikatzeko memoria; eta idazkariaren eta kontuhartzailearen txostenak.

BIGARRENA.- 2024ko ekainaren 27an Udalbatzak, besteak beste, erabaki zuen Tolosako udal kirol instalazioen kudeaketarako zerbitzu-kontratuaren lizitazioa presakotzat jotzea, kontratazio espedientea onartzea eta lizitazioari hasiera ematea.

HIRUGARRENA.- Proposamenak aurkezteko epean, KIROLZER, S.L. (B31603996) eta BPXPORT XXI, S.L.U. (B20901716) enpresek aurkeztu zituzten proposamenak.

LAUGARRENA.- Behin izapidetze guztia legearen arabera egin eta gero, 2024ko abuztuaren 20an, kontratazio-mahaiak proposatu zion kontratazio-organoari erreferentzian aipatutako kontratua KIROLZER, S.L. (B31603996) enpresari baldintzapean adjudikatzea. Baldintzapeko adjudikazio horren ondorioa da, presazko arrazoiengatik, kontratazio-mahaiak adjudikazio-proposamena egin behar izan duela, errekerimenduan eskatutako dokumentazio guztia jaso gabe, SPKLren 150. artikuluan xedatutakoaren arabera. Horregatik, ezinbestekoa izango da, nolana ere, kontratua adjudikatzeko deialdia kontratazio-organoari egin aurretik, adjudikaziodun gisa proposatutako enpresak eskatutako dokumentazio guztia aurkeztea: Udaleko Diruzaintzan 91.863,35 euroko behin betiko bermea eratu izanaren egiaztagiria, 2.000.000 euroko erantzukizun zibileko aseguru-polizaren ziurtagiria eta ordainketa eguneratuta dutela ziurtatzen duen frogagiria eta egikaritzearen baldintza bereziak betetzen dituenaren ziurtagiriak.

BOSGARRENA.- 2024ko abuztuaren 23an egindako Antolakuntza Batzorde Informatiboak gehiengoz onartu zuen KIROLZER, S.L. (B31603996) enpresari baldintzapean adjudikatzea kontratua. Nolanahi ere, kontratua adjudikatzeko deialdia kontratazio-organoari egin aurretik, adjudikaziodun gisa proposatutako enpresak Udaleko Diruzaintzan 91.863,35 euroko behin betiko bermea eratu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko zuen.

SEIGARRENA.- 2024ko abuztuaren 26an, SPKLren 150. artikuluan xedatutakoaren arabera, KIROLZER, S.L. (B31603996) enpresak behin betiko bermea jarri zuen udal diruzaintzan. Horrenbestez, egun berean egindako kontratazio-mahaiak onartu zuen kontratazio-organoari proposatzea Tolosako udal kirol instalazioak kudeatzeko zerbitzu kontratua **KIROLZER, S.L. (B31603996) enpresari adjudikatzea**.

ZAZPIGARRENA.- Hauek dira kontratuaren ezaugarri nagusiak:

- Prezioa urtean: nagusia 1.837.267,04 euro; BEZa 385.826,08 euro; guztira 2.223.093,12 euro.
- Ekoetiketa duten xaboiak erabiltzea, paper higienikoa eta eskuak lehertzeko paper birziklatua erabiltzea, ahal den neurrian klororik gabe eta ekoetiketarekin, plastikozko zabor-poltsa birziklatuak eta ekoetiketa ofizialdunak erabiltzea (ezaugarri horiek ez badituzte, plastiko halogenaturik gabeko poltsak erabiliko dira), garbiketako trapuak eta mikrozuuntzeko mopak erabiltzea, motorra edo beste ehun batzuetako trapuak dituzten ekipoen orde, eskuak lehertzeko ekipoen erabiltzea.
- Beste jarduera, kanpaina, programa eta plan hauek garatzea: Kirol-klubekiko lankidetzaren plana, naturako kirol-jarduerak egitea, haurtzaindegi-zerbitzua ematea eta Kirol Egunaren ospakizuna.

ZORTZIGARRENA.- Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarrian xedaturikoak hain zuzen ere:

Disposición adicional segunda. Competencias en materia de contratación en las Entidades Locales.

- 1. Corresponden a los Alcaldes y a los Presidentes de las Entidades Locales las competencias como órgano de contratación respecto de los contratos de obras, de suministro, de servicios, los contratos de concesión de obras, los contratos de concesión de servicios y los contratos administrativos especiales, cuando su valor estimado no supere el 10 por ciento de los recursos ordinarios del presupuesto ni, en cualquier caso, la cuantía de seis millones de euros, incluidos los de carácter plurianual cuando su duración no sea superior a cuatro años, eventuales prórrogas incluidas siempre que el importe acumulado de todas sus anualidades no supere ni el porcentaje indicado, referido a los recursos ordinarios del presupuesto del primer ejercicio, ni la cuantía señalada.*
- 2. Corresponden al Pleno las competencias como órgano de contratación respecto de los contratos mencionados en el apartado anterior que celebre la Entidad Local, cuando por su valor o duración no correspondan al Alcalde o Presidente de la Entidad Local, conforme al apartado anterior. Asimismo, corresponde al Pleno la aprobación de los pliegos de cláusulas administrativas generales a los que se refiere el artículo 121 de esta Ley.*

Beraz, kontratauaren balio zenbatetsia aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino gutxiago denean alkate-lehendakaria da kontratazioa onartzeko organo eskuduna. Horiek horrela, alkate-lehendakariak 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21.3 artikuluan xedatutakoan oinarrituz, 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 alkatetzaren dekretuaren bitartez erabaki zuen 600.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duten kontratuak Tokiko Gobernu Batzarrean eskuordetzea.

Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia 4.224.531,08 eurokoa denez, Udaleko aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 (3.262.690 euro) baino altuagoa da eta Udaleko osoko bilkura da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna. Horiek horrela, 2024ko ekainaren 27an Udalbatzak erabaki zuen osoko bilkuraren eskumenak Tokiko Gobernu Batzarri eskuordetzea, kontratuaren bukaera arte, eraginkortasun eta bizkortasun arrazoiengatik, eta 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 22.4. artikuluan xedatutakoaz baliatuz. Eskuordetze horretatik salbu geratu ziren kontratua eteteari, suntsiarazteari eta azkentzeari buruzko edozein ebazpen hartzea. Gauzak horrela, **kontratazio-organoak erabaki du Tokiko Gobernu Batzarrean eskuordetutako eskumenak bereganatzea kontratuaren adjudikazioa egiteko.**

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 10. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalbatzak Tokiko Gobernu Batzarri eskuordetutako eskumenak bereganatu behar ditu. Nolanahi ere, eskumena bereganatzeko erabaki hori

prozedurako interesdunei jakinarazi beharko zaie, kontratua adjudikatzeko ebazpen honekin batera. Halaber, eskumenen bereganatze hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190.eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Aurreko guztia aintzat harturik, kontratazioko AOTren aldeko txostena ikusita, Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2024ko abuztuaren 23an egindako bilkuran, irizpen-proposamena aztertu eta bozkatu du.

Bozketaren emaitza honakoa hau izanda da:

Aldeko botoak: Kristina Peláez Errazkin, Josune Sanz Vidal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Garbiñe Marzol Ormazábal.

Abstentzioak: Biotxa Agirre Ugalde eta Ainhoa Domínguez Landa.

Beraz, gehiengoz, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko bilkurari:

IRIZPENA

LEHENENA.- 2024ko ekainaren 27an Tokiko Gobernu Batzarrean eskuordetutako eskumenak bereganatzea kontratuaren adjudikazioa egiteko. Eskumenen bereganatze hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

BIGARRENA.- Lizitazio-egintzaren baliozkotasuna deklaratzeko.

HIRUGARRENA.- KIROLZER, S.L. (B31603996) enpresari adjudikatzea Tolosako udal kirol instalazioak kudeatzeko zerbitzu kontratua.

LAUGARRENA.- Adieraztea enpresak lizitazioa arautzen duten pleguetan xedatutakoa bete beharko duela, inolako erreserbarik gabe.

BOSGARRENA.- Erabaki horiek jakinaraztea interesdunari, Kirolak Sailari eta Idazkaritza Orokorra, Administrazioaren Modernizazioa, Kontratazioa eta Ondare Azpisailari.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi eta Garbiñe Marzol Ormazabal.

Abstentzioak: Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz, onartu du Kirolzer, S.L. (B31603996) enpresari adjudikatzea Tolosako udal kirol instalazioak kudeatzeko zerbitzu kontratua.

Besterik gabe, 11:45ean, bilera bukatutzat eman dute, eta nik, idazkari akzidentala naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, alkateak ontzat emanik.

ALKATEA
O.e.

IDAZKARI AKZIDENTALA



TOLOSAKO
UDALA

Tolosako udaletxean, 2024ko abuztuaren 30ean.

AGERTU DIRA

Alde batetik, Angel Martinez de Rituerto Arregui jauna, adinez nagusia, jakinarazpenetarako helbidea Tolosako Udalean duena (Plaza Zaharra, 6A).

Bestetik, Fernando Llano Martínez jauna, adinez nagusia, ezkondua, fisikoa, ondorio hauetarako helbidea Serrano kaleko 55eko 2. solairuan duena (Madrid, 28006), 72.132.208-E NAN zenbakia duena.

ESKU HARTZEN DUTE

Lehena, Tolosako Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz, udalbatzak 2024ko abuztuaren 30ean egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat etorritik. Erabaki horren ziurtagiria 1. dokumentu gisa erantsi da.

Bigarrena, BPXport XXI, S.L.U merkataritza-sozietatearen ordezkari gisa, BPXport XXI, S.L.U. sozietateak bazkide bakarraren erabakiak publiko egiteko eskrituran emandako ahalmenekin bat etorritik. Eskritura hori Amanay Rivas Ruiz Madrilgo notarioaren aurrean egiletsi zen, 2024ko apirilaren 17an, 1.149 protokolo-zenbakiarekin.

Agertutakoak adierazten du bere karguko betebeharrean dagoela, ezen bere aldeko ahalmenak eta ordezkaritza ez zaizkiola errebokatu, kendu edo mugatu, oso-osorik daudela indarrean eta bere ordezkatuaren gaitasun juridikoa ez dela aldatu ere.

Tolosako Udaleko alkatea Udaleko idazkari akzidentalarekin batera agertu da. Francisco Javier Araniguría Rodrigo, ekitaldi honen fede ematen duena.

En la Casa Consistorial de la Villa de Tolosa, a 30 de agosto de 2024

COMPARECEN

De una parte, D. Angel Martinez de Rituerto Arregui, mayor de edad, con domicilio a efectos de notificaciones en el Ayuntamiento de Tolosa, Plaza Zaharra, 6A.

De otra parte, D. Fernando Llano Martínez, mayor de edad, casado, físico, con domicilio a estos efectos en la calle Serrano número 55, 2ª Planta, Madrid-28006, con DNI 72.132.208-E.

INTERVIENEN

El primero, en nombre y representación del Excmo. Ayuntamiento de Tolosa, de conformidad con el acuerdo adoptado por el pleno de la corporación en sesión celebrada el 30 de agosto de 2024, cuya certificación se acompaña como documento nº 1.

El segundo, en representación de la mercantil BPXport XXI, S.L.U, de conformidad las facultades conferidas en la escritura de elevación a público de las decisiones del socio único otorgada por la sociedad BPXport XXI, S.L.U., ante la notario de Madrid Dña. Amanay Rivas Ruiz el 17 de abril de 2024, número 1.149 de protocolo.

Manifiesta el compareciente que se encuentra en el ejercicio de su cargo, que sus facultades no le han sido revocadas, suspendidas ni limitadas y que no ha variado la capacidad jurídica de su representada.

El Alcalde del Excmo. Ayuntamiento de Tolosa comparece acompañado del Secretario accidental del Ayuntamiento, D. Francisco Javier Araniguría Rodrigo, quien da fe del presente acto.

ESKUB3fa9cb5-3d42-4e7a-b75d-acb1e72cbae2



Bi aldeek, bakoitzak ordezkaten duenaren izenean jardunez, obligazioak hartzeko legezko gaitasuna elkarri aitortu eta, honen ondorioetarako, erabakitzen dute honakoa xedatzea:

ADIERAZI DUTE

LEHENA.- 2021eko otsailaren 5ean Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialaren gehigarrian (DO/S S25 60045-2021-ES) lizitazioaren aurretiko iragarkia argitaratu ondoren, Tolosako Udalak, 2021eko irailaren 30ean egindako ohiko bilkuran, besteak beste, Tolosako udal kirol instalazioen kudeaketa integraleko zerbitzuen emakida-kontratua esleitzeko kontratazio espedientea onartu zuen, bai eta kontratuaren lizitazioari hasiera eman ere.

Kontratazio-espeditentak, besteak beste, honako agiri hauek zituen:

- Preskripzio tekniko partikularren plegua.
- Administrazio-baldintza partikularren plegua.
- Emakidaren azterketa ekonomiko-finantzarioa, AGEM aholkularitza-enpresak egin.
- Langile subrogagarrien eranskina, enpresa kontratistak garai hartan emandako informazioaren arabera.
- Enpresako lan-hitzarmena, 2018an sinatua, 2020ko ekainaren 1ean automatikoki salatua eta ultraaktibitatearen mende dagoena.

BIGARRENA.- Egin beharreko izapideak egin ondoren, eta SPKLn eta aplikatu beharreko gainerako legeetan xedatutakoarekin bat etorritik, 2022ko otsailaren 8an kontratazio-mahaia kontratazio-organoari (Udalbatzari) proposatu zion erreferentziako kontratua

Ambas partes, con la representación con que respectivamente actúan, se reconocen mutuamente capacidad legal para obligarse, y a estos efectos conviene en determinar lo siguiente:

MANIFIESTAN

PRIMERO.- Tras la publicación el 5 de febrero de 2021 del correspondiente anuncio previo de licitación en el Suplemento al Diario Oficial de la Unión Europea (DO/S S25 60045-2021-ES), el pleno del Ayuntamiento de Tolosa, en sesión ordinaria celebrada el día 30 de septiembre de 2021, aprobó, entre otros, el expediente de contratación para la adjudicación del contrato de concesión de servicios de gestión integral de las instalaciones deportivas municipales de Tolosa, así como iniciar la licitación del contrato.

El expediente de contratación contenía, entre otros, la siguiente documentación:

- Pliego de prescripciones técnicas particulares.
- Pliego de cláusulas administrativas particulares.
- Estudio económico-financiero de la concesión realizado por la consultora AGEM.
- Anexo de personal subrogable, de conformidad con la información facilitada por la empresa contratista a la sazón.
- Convenio laboral de empresa, suscrito en 2018, denunciado automáticamente el 1 de junio de 2020, y sujeto a ultraactividad.

SEGUNDO.- Una vez realizados los trámites pertinentes, y de conformidad con lo dispuesto en la LCSP y demás legislación aplicable, el 8 de febrero de 2022, la mesa de contratación propuso al órgano de contratación (Ayuntamiento Pleno) la adjudicación del



TOLOSAKO
UDALA

BPXport XXI, SLU enpresari adjudikatzea, izapidetutako lizitazioan puntuaziorik handiena lortu zuelako.

Tolosako Udalak, 2022ko otsailaren 22an egindako osoko bilkuran, udal kirol instalazioen kudeaketa integraleko zerbitzuaren emakida kontratua aipatutako enpresari adjudikatzea erabaki zuen. Ebazpen horren ondoren, eta irtetzen zuen enpresak eta esleipendun berriak egindako eskaera onartu ondoren, kontratua 2022ko irailaren 1ean formalizatu zen, eta egun berean jarri zen indarrean.

HIRUGARRENA.- Enpresa emakidaduneko langileek hasitako greba mugagabea zela eta, kirol-instalazio gehienak jendearentzat itxita egon ziren 2023ko maiatzaren 8tik azaroaren 20ra eta 23ra, hurrenez hurren.

Tolosako Udaleko osoko bilkurak, 2023ko azaroaren 14an egindako bileran, honako erabaki hauek hartu zituen:

“Lehenengoa.- Hasiera ematea Tolosako Udalaren kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratua suntsiarazteko prozedurari (Esp.: 2021CSER0002).

Bigarrena.- Emakidadunari, HAKLEOren 109.1a) artikuluan xedatutakoaren arabera, 10 egun naturaleko entzunaldi-epea ematea, ebazpen honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eskubidez komeni zaiona alega dezan, bere jarrera defendatzeko agiriak eta egiaztagiriak aurkeztuz.

Emandako epean alegaziorik aurkeztzen ez bada, ulertuko da ez diola aurka egin kontratua suntsiarazteari.

Hirugarrena.- Banco de Sabadell SA erakunde abal-emaleari entzunaldia ematea, ebazpen honen bigarren puntuan adierazitako epean.

contrato de referencia a la empresa BPXport XXI, S.L.U, por haber obtenido la máxima puntuación en la licitación tramitada.

El pleno del Ayuntamiento de Tolosa, en sesión celebrada el 22 de febrero de 2022, acordó realizar la adjudicación del contrato de concesión del servicio de gestión integral de las instalaciones deportivas municipales en favor de la empresa citada. Tras esta resolución, y previa aceptación de la solicitud realizada por la empresa saliente y la nueva adjudicataria, el contrato fue suscrito el uno de septiembre de 2022, entrando en vigor en la misma fecha.

TERCERO.- Con motivo de la huelga indefinida emprendida por los trabajadores de la empresa concesionaria, la mayor parte de las instalaciones deportivas permanecieron cerradas al público desde el 8 de mayo hasta el 20 y 23 de noviembre de 2023, respectivamente.

El pleno del ayuntamiento de Tolosa, reunido en sesión celebrada el 14 de noviembre de 2023, adoptó los acuerdos que a continuación se transcriben:

“Primero.- Incoar procedimiento de resolución del contrato de concesión de servicios para la gestión integral de las instalaciones deportivas municipales de Tolosa (Exp. 2021CSER0002).

Segundo.- Conceder a la Concesionaria, conforme dispone el artículo 109.1a) del RGLCAP, un plazo de audiencia de 10 días naturales a contar desde el día siguiente a la recepción de la notificación de esta resolución, para que alegue a lo que en su derecho convenga, presentando los documentos y justificantes en defensa de su postura.

La no presentación de alegación alguna en el plazo concedido se interpretará como no oposición a la resolución del contrato.

Tercero.- Conceder audiencia a la entidad avalista Banco de Sabadell, S.A., en el mismo plazo señalado en el punto segundo de esta



Laugarrena.- Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea.”

Osoko bilkuran bertan, Tolosako Udalak erabaki zuen lizitazio-prozedura berri bati lehenbailehen ekitea, eta kontratuaren esleipena indarrean dagoen emakida amaitzearen baldintzapean jarri zuen.

Lehen esan bezala, kirol-instalazioek normaltasunez berreskuratu zuten jarduera 2023ko azaroaren 20an eta 23an.

Udal honek ebazpen-prozeduran emandako arrazoiak, funtsean, honako hauek ziren:

- Langileen greba dela-eta kontratuaren betebeharrak nagusia bertan behera uztea.
- Kontratu-dokumentazioan jaso gabeko gastu-kontzeptu berri bat sartzea.
- Kontratuaren xede diren inbertsioak ez gauzatzea.

LAUGARRENA.- 2023ko abenduaren 4an, enpresa emakidadunak alegazio-idatzi bat aurkeztu zuen Udal honetako erregistro orokorrean (14.907/2023 zk.), aipatutako espediente honetan dauden 9 dokumenturekin batera. Aurkeztutako dokumentazioan, hasitako prozeduraren aurka zegoela adierazten zuen, eta horri buruzko argudioak ematen zituen.

2024ko otsailaren 29an, Udaltzatzaileak, besteak beste, kontratua suntsiarazteko espedientea Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari bidaltzea erabaki zuen, nahitaezko txostena egin zezan.

resolución.

Cuarto.- Notificar la presente resolución a los interesados.”

En la misma sesión plenaria, el Ayuntamiento de Tolosa acordó iniciar de forma urgente un nuevo procedimiento de licitación, condicionando la adjudicación del contrato a la finalización de la concesión en vigor.

Como se ha expresado anteriormente, las instalaciones deportivas recuperaron su actividad con normalidad en las fechas de 20 y 23 de noviembre de 2023.

Las razones esgrimidas por este Ayuntamiento en el procedimiento de resolución eran, fundamentalmente, las siguientes:

- Cese en la prestación de la obligación principal del contrato con motivo de la huelga de los trabajadores.
- Inclusión de un nuevo concepto de gasto no contemplado en la documentación contractual.
- Inejecución de las inversiones objeto del contrato.

CUARTO.- Con fecha de 4 de diciembre de 2023, la empresa concesionaria presentó en el registro general de este Ayuntamiento (n.º 14.907/2023) un escrito de alegaciones, acompañado de 9 documentos, que obran en el presente expediente de referencia. En la documentación presentada manifestaba su oposición al procedimiento iniciado, exponiendo su argumentación al respecto.

El 29 de febrero de 2024, el Ayuntamiento pleno acordó, entre otros, remitir el expediente de resolución contractual a la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, a fin de que evacuase el preceptivo informe.



Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salak 2024ko urtarrilaren 29an emandako 422/2024 Epaia onduz, zeinaren arabera Auzitegiak zehazten baitu, autonomia-erkidegoak berariaz arautu ezean, kontratua suntsiarazteko espedienteak izapidetzeko eta ebazteko gehieneko epea 3 hilabetekoa dela, Tolosako Udalak, 2024ko martxoaren 27an egindako osoko bilkuran, besteak beste, ebazpen-espedientearen iraugitze-prozedura hastea erabaki zuen.

Iraungitzaletzat jotzeko prozedura hori behin betiko ebatzi gabe dago oraindik, eta Tolosako Udalarik dagokio deklarazio hori egitea.

BOSGARRENA.- Enpresa emakidadunaren ordezkariak agerraldia egin du Udalean, eta eskatu du azter dadila egungo emakidari amaiera emateko aukera, aldean arteko akordio baten bidez.

Horretarako, hainbat bilera egin dira, eta, horietan, kontratistak honako proposamen hauek egin ditu:

- Enpresak diru-sarreraren eta gastuen kontuak doitu (2022ko, 2023ko eta 2024ko hirugarren lauhilekoa, emakida-kontratua suntsiarazten den egunera arte), kontratu-dokumentazioan ezarritako baldintzen arabera, suntsiarazpen-espedientearen eragin zuten zenbatekoak sartu gabe, dokumentu honetako klausuletan zehazten den moduan.
- Dokumentu honetan ezarritako kontratua amaitu arte gauzatzeko dauden inbertsioak egingo ditu, bertan zehazten diren baldintzen arabera.
- Birjarpen-inbertsioak egiaztatuko ditu, edo, hala badagokio, egingo ditu, kontratuan ezarritako baldintzen arabera.

Como consecuencia de la Sentencia nº 422/2024 dictada por la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Supremo en fecha 29 de enero de 2024, en virtud de la cual el Tribunal determina que, a falta de regulación expresa de la comunidad autónoma, el plazo máximo para instruir y resolver los expedientes de resolución contractual es de 3 meses, el pleno del Ayuntamiento de Tolosa, en sesión celebrada el 27 de marzo de 2024, acordó, entre otros, iniciar el procedimiento de caducidad del expediente resolutorio.

El citado procedimiento de declaración de caducidad se halla en la actualidad pendiente de resolución definitiva, correspondiendo al pleno del Ayuntamiento de Tolosa dicha declaración.

QUINTO.- La representación de la empresa concesionaria ha comparecido en este ayuntamiento, solicitando se explore la posibilidad de poner fin a la concesión existente mediante un acuerdo entre las partes.

A tal efecto, se han desarrollado diversas reuniones, durante las cuales la contratista ha realizado las siguientes propuestas:

- La empresa ajustará sus cuentas de ingresos y gastos (tercer cuatrimestre de 2022, 2023 y 2024 hasta la fecha de resolución del contrato de concesión) a los términos establecidos en la documentación contractual, sin incluir las cantidades que dieron origen al expediente resolutorio, en la forma que se determina en las cláusulas del presente documento.
- Realizará las inversiones pendientes de ejecución hasta la fecha de finalización del contrato establecida en el presente documento, de conformidad con los términos que se determinan en el mismo.
- Acreditará o, en su caso, realizará las inversiones de reposición conforme a los términos establecidos en el contrato.



Era berean, emakidadunak 2023ko ekitaldiari dagozkion kontuen egoera-orriak aurkeztu ditu Udal honetako sarrera erregistroan, enpresaren legezko ordezkariak sinatuta, gaur egungo kontuen egoera justifikatzen duen auditoretza-dokumentu batekin batera. Aurkeztutako dokumentazioaren arabera, 2023ko ekitaldiari dagokion ustiapen-kontuak **316.740,96 euroko** emaitza negatiboa du, batez ere langileek sei hilabete baino gehiagoz egindako grebaren ondorioz.

SEIGARRENA.- 2024ko lehen hilabeteetan, honako gertakari hauek izan dira, eta, zalantzarik gabe, kontratuaren ekonomiari eragiten diote:

Sinatutako emakida-kontratuak aurreikusten zuen hainbat inbertsio egitea planifikatuta, emakidadunak kudeatzen dituen instalazioak haren kargura mantentzeko eta berritzeko, 1.380.000 euroko zenbatekoarekin guztira. Bestalde, urtean 35.000 euroko partida zegoen birjarpen-inbertsioetarako.

Zerbitzuak mantentzera eta hobetzera bideratutako inbertsioei dagokienez, 225.000 euroko zuzkidura aurreikusten zen gastu energetikoa monitorizatzeko eta instalazioak kontrolatzeko sistema eguneratzeko, baita galdara berri bat instalatzeko ere, hori guztia Usabal kiroldegian.

Hala ere, azken hilabeteetan akats handiak antzeman dira Usabal kiroldegiko kogenerazio-, klimatizazio- eta ur bero sanitarioko instalazioetan, eta akats horiek instalazio horretan eskaintzen diren zerbitzuen funtzionamendu normalari eragin diezaiokete. Beraz, beharrezkoa da osorik berritzea.

Asimismo, la concesionaria ha presentado ante el registro de entrada de este Ayuntamiento los estados de cuentas correspondientes al ejercicio 2023, suscritos por el representante legal de la empresa, junto con un documento de auditoría justificativo de la situación de las cuentas en la actualidad. De conformidad con la documentación presentada, la cuenta de explotación correspondiente al ejercicio de 2023 presenta un resultado negativo de **316.740,96 euros**, principalmente como consecuencia de la huelga desarrollada por sus trabajadores durante más de seis meses.

SEXTO.- Durante los primeros meses de 2024, han tenido lugar los siguientes acontecimientos, que sin duda afectan a la economía del contrato:

El contrato de concesión suscrito preveía la ejecución planificada de diversas inversiones con objeto de mantener y renovar las instalaciones gestionadas por la concesionaria a cargo de aquélla, por una cuantía total de 1.380.000 euros. Por otra parte, existía una partida anual de 35.000 euros destinada a inversiones de reposición.

En relación con las inversiones destinadas al mantenimiento y mejora de los servicios, se preveía una dotación total de 225.000 euros para la monitorización del gasto energético y la actualización del sistema de control de las instalaciones, junto con la instalación de una nueva caldera, todo ello en el polideportivo Usabal.

Sin embargo, durante los últimos meses se han detectado importantes deficiencias en las instalaciones de cogeneración, climatización y ACS del polideportivo Usabal, deficiencias que pudieran afectar al normal funcionamiento de los servicios ofrecidos en dicha instalación, por lo que es necesario abordar su renovación integral.



